

## **Errepresentazioen egibaldintzak: zerbaitez jardun eta zerbaiti buruzkoa izan**

*The truth-conditions of representations: concern and be about*

Beñat Esnaola\*


ILCLI eta Filosofia Saila (UPV/EHU)

**LABURPENA.** Artikulu honetan azaltzen dut filosofo batzuek oker egotzi dizkiotela bi gauza John Perryri. Zehazki, “Thought without Representation” ([1986] 2000) lanean, batetik, errepresentazioa zerbaiti *buruzkoa izatea* vs errepresentazioak zerbaitez *jardutea* bereizketa eskusiboa egin zuela; eta, bestetik, osagai artikulatugabeak dituzten errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko proposizio erlatibizatuak erabili zituela. Argudiatzen dut Perryren bereizketa ez dela eskusiboa, eta Perryrentzat osagai artikulatugabeak errepresentazioaren egibaldintzen osagai direla, eta errepresentazioa osagai artikulatu zein artikulatugabeei buruzkoa dela. Horrez gainera, diot, proposizio erlatibizatuak onartzeak Perry ([1986] 2000)ren tesi nagusiaren kontra egingo zukeela.

**GAKO-HITZAK:** baiezenak; usteak; osagai artikulatugabeak; osagai artikulatuak; proposizio erlatibizatuak; John Perry.

---

\* Esker on berezia adierazi nahi diot nire zuzendari den Kepa Kortari lan honen aurreko bertsioei egindako iruzkin zorrotzengatik eta erakutsitako pazientziarengatik. Eskerrik asko, orobat, *Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuko* (ILCLiko) *Language, Action, and Thought* taldeko kideei; bereziki, Josu Acosta, Javier Belastegui eta Yolanda Garcíari lan honen aurreko bertsioei egindako zuzenketa eta oharrengatik. Azkenik, nire eskerrak Gogoaren ebaluatzaile anonimoei. Lan hau egiteko, Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko beka baten laguntza izan dut. Horrez gainera, *Language, Action, and Thought* ikerketa-taldeari emandako honako dirulaguntza huez baliatu ahal izan naiz: Eusko Jaurlaritzaren IT1032-16 kodea daramanaz, eta Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren MCIN/ AEI /10.13039/501100011033; PID2019-106078GB-I00 proiektuaz.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Beñat Esnaola. ILCLI. UPV/EHU. Carlos Santamaria Zentroa. Elhuyar plaza, 2, 20018 Donostia. [benat.esnaola@ehu.eus](mailto:benat.esnaola@ehu.eus)  <https://orcid.org/0000-0002-8006-9133>

**ABSTRACT.** *In this paper, I argue that some philosophers have misinterpreted John Perry's "Thought without Representation" ([1986] 2000) in two ways. They have taken, on the one hand, his distinction between a representation being about something vs concerning something to be exclusive, and, on the other hand, that he used relativized propositions to capture the truth-conditions of representations with unarticulated constituents. I argue that Perry's distinction is not exclusive and that he argues that unarticulated constituents are part of a representation's truth-conditions, and that representations are about both articulated and unarticulated constituents. I also argue that accepting relativized propositions would directly contradict Perry's thesis defending in "Thought without Representation".*

**KEYWORDS:** *statements; beliefs; unarticulated constituents; articulated constituents; relativized propositions; John Perry.*

## 1. Sarrera

Donostian nago eta euria ari du hau idazten ari naizen bitartean. Hori gertakari bat da. Baina gertakari horri buruz hitz egiteko esaldi ezberdinak erabil litezke. Esan nezake: "Euria ari du Donostian" edo "Euria ari du Gipuzkoako hiriburuan" edo "Euria ari du hemen" edo, besterik gabe, "Euria ari du". Esaldi horiek egibaldintza berak dituzte, alegia, gertakari berari buruzkoak dira;<sup>1</sup> hots, Donostia hiria berari, esaldia egin den denbora-tarteari eta euria egitearen arteko erlazioari buruzkoak.

Donostiari buruz hitz egiteko "Donostia" izena, "Gipuzkoako hiriburua" deskripzio definitua, edo Donostian egonda, "hemen" leku-aditzondoa ere erabil litezke. Kontua da, kasu askotan, ez dela zertan hitzik esan, Donostiari buruz hitz egiteko. "Euria ari du" Donostiari buruzko esaldia da, orain esana, nahiz erabili dudana perpausak ez daukan hitz edo morfemarik, ezkutuko nahiz agerikorik, Donostiari erreferentzia egiten dionik. Edo John Perryk ([1986] 2000) formulatu zuen moduan, "Euria ari du" esaldiaren egibaldintzen *osagai artikulatugabea* da Donostia, ez baitago esandako perpausaren hitz edo morfemarik hiria *artikulatzen* duenik.

Horren harira, Perryk beste bereizketa bat ere egin zuen, errepresentazio baten eta bere egibaldintzen osagaien erlazioari buruzkoa zerbaitez *jardun/zerbaiti buruzkoa izan* bereizketa, *concern something/be about something* bereizketa da ingelesez. Bereizketa erabilgarria iruditu zaie askori, baina kontua da askotan oker interpretatu dela. Hori argudiatuko dut behintzat. Azalduko dudanez, Perryk bi modutan erabili zuen bereizketa. Batetik, berea ez zen ikuspegia azaltzeko erabili zuen bereizketa. Interpretazio *esklusiboa* esango diot. Interpretazio horren arabera, bi kategoriak elkar-baztertzaileak dira. Alegia, errepresentazioak zerbaitez *badihardu* ez da horri *buruzkoa* eta zerbaiti *buruzkoa* bada ez *dihardu* errepresentazioak horretaz. Bestetik, berea zen ikuspegia azaltzeko erabili zuen: bereizketaren interpretazio *inklusiboa* esango diot. Horren arabera, kategoria bat bestearen baitako da. Luzeago azalduko dut hori guztia ondoren. Kontua da, hain justu, bere ikuspegia ez zena azaltzeko erabilitako modua bakarrik hartu dutela aintzat askok; hau da, bereizketa eksklusiboki ulertu dutela eta Perryri bereizketa horrela bakarrik erabili izana egozten diotela. Oker daudela azalduko dut; oker egoteko arrazoiak badaudela argituko dudan arren.

---

<sup>1</sup> Ikus 3. oin-oharra.

Bereizketaren gaizki-ulertua hor geratu izan balitz, ez legoke arazo handirik. Hautu terminologiko ezberdinen kontua litzateke, beharrezko argibideak emanda, besterik gabe, konpontzeko modukoa. Bereizketa erabil liteke interpretazio eskusiboan, hala nahi izanez gero, Perryrena ez den ikuspegia defendatzeko. Hori egiten du, esaterako, Barwisek (1989). Alabaina, Perryri bereizketa okerra egotzi dioten batzuek beste egozte faltsu bat ere egin diote. Horiek Perryri egozten diote defendatzea, errepresentazioak osagai artikulatugabeaz diharduen kasuetan, errepresentazioaren egibaldintzak proposizio erlatibizatu bidez jaso litezkeela. Egibaldintza aldakorra izan dezaketen proposizioak onartzea esan nahi du horrek, alegia, haien egia egibaldintzen kanpoko aspektu baten arabera den proposizioak onartzea: kokapen espazio-tenporala, hiztuna, entzulea edo, kasuan-kasuan, artikulatu gabe joango litzatekeen aspektua. Erakusten saiatuko naizenez, azken egozte oker hori bereziki larria da; bi aldiz baita okerra. Perryk ez zuen halakorik esan, eta ezin zuen halakorik esan: proposizio erlatibizatuak onartuz gero, defenditzen ari zen tesiaren kontra egingo zukeen zuzenean. Izan ere, osagai artikulatugabeak ez badira proposizio erlatibizatuko osagai, orduan, ez dira egibaldintzen osagai; eta, hortaz, ezta osagai artikulatugabeak ere. Argudiatuko dut, Perry ([1986] 2000) osagai artikulatugabeak defendatzen ari bazen, errerepresentaziorik gabeko pentsamenduak bazirela argudiatzeko, ezin zezakeela kontrarik defendatu.

Badirudi zerbaitez jardutearen eta zerbaiti buruzkoa izatearen arteko bereizketaren interpretazioak, edo Perryk proposizio erlatibizatuak egibaldintzentzako erabili zituen edo ez argitzeak, ez duela interes handirik, Perryren ikuspegiaren exegesiaren harago. Hala ere, uste dut gutxienez bi arrazoi badaudela hori uste ez izateko. Lehenik eta behin, gaizki-egozte hori beste zenbait eztabaidatan islatzen da. Bat bakarrik aipatzearen. Askotan iradokitzen da Perryk, Lewisekin batera, *de se* pentsamenduen garrantziaz konbentzitu gintuela (Torre 2012, Ninan 2016). Filosofo horiek, besteren artean, *de se* pentsamenduen ezaugarri bereizgarria egibaldintza erlatibizatuak izatea den ala ez eztabaidatzen dute. Sarritan argudiatzen da Perryk berak baietz erantzun ziola galdera horri, gutxienez *de se* pentsamendu inplizituen kasuan, alegia, nia artikulatu gabe duten pentsamenduen kasuan.

Bigarrenik, zenbait filosofok uste dute, besteak beste Stephen Nealek, Perryk gai honi buruz egindako lanak galdera garrantzitsuak planteatzen dituela gogoaren filosofian eta hizkuntzaren filosofian lan egiten duen edonorentzat:

Gai honetan Perryk egindako lanak [...] behartzen gaitu aurre egitera nire ustez gogoaren filosofian eta hizkuntzaren filosofian lan egiten duen edonori planteatzen zaizkion galdera zail eta garrantzitsuenetakoak diren batzuei. [...] Azpiartikulatuak diruditen kasuetatik zenbat esplikatuko behar dira azalpen *esplizitu-eliptiko-buruzkoek* iradokitako moduan, eta zenbat *inplizitu-background-jardun* azalpenek iradokitako moduan. (Neale 2007: 357)<sup>2</sup>

Nealek perpausean artikulatu gabe dauden osagaiak esplikatzeko bi azalpen bereizten ditu, eta azalpen horietako bakoitza Perryk egiten duen bereizketaren adar batekin identifikatzen du. *Buruzkoarekin* identifikatzen duen azalpenak osagai artikulatugabeak egibaldintzen parte direla defendatzen du. Aldiz, *jardunekinekin* identifikatzen duen azalpenak osagai

<sup>2</sup> "Perry's work on this topic [...] forces us to confront what I take to be some of the most difficult and most important questions facing anyone working in the philosophy of mind and the philosophy of language. [...] How much of any seeming underarticulation is to be explained in the manner suggested by those who have talked about *explicit-elliptical-about* approaches to certain data, and how much in the manner suggested by *implicit-background-concerns* approaches."

artikulatugabeak egibaldintzetatik kanpo uzten ditu. Perryren bereizketa horrela erabiltzea nahasgarria da. Izan ere, Perryk bereizketaren bi adarrak azalpen esplizitu-eliptiko-buruzko deitzen duenarentzat darabilzki. Hortaz, Nealek dioen moduan, Perryren lanak galdera garrantzitsu eta zail horien aurrean jartzen bagaitu, Perryren lana argitzeak, gutxienez, galdera horiek fintzen lagun diezaguke.

Horretarako, bigarren atalean, osagai artikulatugabeak aurkeztu eta osagai artikulatugabe klase ezberdinak bereiziko ditut. Ondoren, hirugarren atalean, Perryren bereizketa zein den argituko dut eta azalduko dut zer bereizketa egotzi dioten oker. Hori egiteko arrazoiak ere esplikatuko ditut. Jarraian, laugarren atalean, bigarren gaizki-egoztea aurkeztuko dut: proposizio erlatibizatuak onartu izana errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko. Perryk horrelarik ez zuela baietsi azalduko dut eta erlatibismoari ikusten zizkion bi arazo esplikatuko ditut. Jarraian, bere ikuspegia zein den adieraziko dut eta proposizio erlatibizatuak zertarako erabili zituen argituko dut.

## 2. Osagai artikulatugabeak

Hasieran esan dudan bezala, Donostian nago eta euria ari du hau idazten ari naizen bitartean. Gertakari horri buruz hitz egiteko ondorengo edozein esaldi egin nezake:

- (1) Euria ari du Donostian.
- (2) Euria ari du Gipuzkoako hiriburuan.
- (3) Euria ari du hemen.
- (4) Euria ari du.

Perryren arabera, goiko esaldi horiek guztiek egibaldintza berak izango lituzkete.<sup>3</sup> Alegia, perpaus horien guztien bidez egindako esaldien egibaldintzen osagaiak dira EURIA-ARI-IZAN erlazioa; esaldia egin den momentua, 18:30, 2022KO ABENDUAREN 8A, eta DONOSTIA hiria bera. Esaldi horiek egiazkoak dira, baldin eta bakarrik baldin gertakari bat baldin bada munduan, edo egitate bat, edo gertaera bat bada euria ari duela egun eta ordu horretan Donostian.

Hori bai, egibaldintza berak badituzte ere, dituzten egibaldintzak ez dituzte modu berean. Esaterako, (1) esaldiaren perpausaren elementuak dira “euria” osagarri zuzena, “ari du” aditz jokatua eta “Donostian” adberbio-sintagma.<sup>4</sup> Kasu honetan, (1) esaldiaren perpausaren elementu bakoitzari, (1) esaldiaren egibaldintzen osagai bat dagokio. Hori esateko beste

<sup>3</sup> Emantzat hartuko dut “Gipuzkoako hiriburua” erreferentzialki ari garela erabiltzen. Perryri ([2001] 2012) jarraiki, egibaldintza edo *eduki designazionalez* ari naiz edo Korta eta Perryk egibaldintza edo eduki *erreferentzial\** deitzen dietenez, nahiz eta esaldi berberak horientzat beste egibaldintza batzuk ere izan.

<sup>4</sup> Azalpena erraztearren, ez dut aintzat hartuko horrelako perpausetan subjektu lanak egingo lituzkeen izenordain *espletibo* isil baten aukera. Bestalde, ohikoa denez, aditzaren erroa eta flexioa bi elementutzat hartuko ditut; hurrenez hurren, erlazio bat eta denbora-tarte edo une bat designatzen dituzte.

modu bat da “bat-bat korrespondentzia” dagoela perpausaren elementuen eta esaldiaren egibaldintzen osagaien artean. Gauza bera gertatzen da (2)ren eta (3)ren kasuan ere, deskripzio definituak eta leku-aditzondoak, hurrenez hurren, zehazten dute esaldi horien egibaldintzen edo gauza-egoeraren lekua. “Hemen”en kasuan, deskripzio definituaren kasuan ez bezala, testuinguruaren laguntza behar da lekua mugatzeko. Hortaz, (1)-(3)ren kasuan artikulatuta dago euria ari duen lekua. (4)ren kasuan, aldiz, ez dago esaldiaren perpausaren euria non ari duen zehazten duen elementurik, ez ageriko, ez ezkutukorik. (4) esaldiaren osagai artikulatugabea da euria ari duen lekua. Hori da Perryk ([1986] 2000) baieztatu duena.

### 2.1. Osagai artikulatugabe klaseak

Esan dut osagai artikulatugabeak esaldien egibaldintzen osagai direla eta ez direla perpausako elementuei —ageriko zein ezkutukoei— dagozkien osagaiak. (4) esaldian osagai artikulatugabeak egiten duen ekarpena da esaldiaren egibaldintzak osatzea, nahiz eta gramatikalki perpaus osoa izan. Badirudi, ordea, osagai artikulatugabe guztiak ez direla horrelakoak. Kontuan har honako adibide hau. Yolanda tesia amaitu berri du eta festa bat antolatzen ari da. Yolanda eta biok ikerketa-taldekideak gara eta honela esan dit:

(5) Denak gonbidatu ditut.

(5), (4) bezala, gramatikalki osoa den perpausa da. Kasu honetan, izenordain isilak “nik” esaldiaren esalea, Yolanda, artikulatzen du bere erreferentzia gisa. “Denak” izenordainaren kasuan, berriz, ez dago garbi zein den bere erreferentzia. Badirudi, Yolanda (5) esaldiaren egibaldintza egokiak jasotzeko “denak”en eragin-eremua zehazten duen osagai bat behar dugula. Yolanda ez da ari munduko pertsona denei buruz, gure ikerketa-taldekide denoi buruz baizik. Kontuan izanda (5)en hartzailea ikerketa-taldekidea dela, eta festaren arrazoia lorpen akademiko bat dela, zentzuzkoagoa da pentsatzea ikerketa-taldekideei buruz ari dela.

Har dezagun honako beste kasu hau. Goizean goizetik lanean ari den Iratik honela dio:

(6) Ez dut gosaldtu.

Badirudi, (6) esatean, Iratik ez duela esan esaldia esan baino lehenago sekula gosaldtu ez duenik. Zerbait espezifikagoa esan du; hots, gaur eta esaldiaren denbora tartean ez duela gosaldtu.

(5) edo (6) esaldien eta (4) esaldiaren osagai artikulatugabearen ekarpena ezberdina da. (4)ren kasuan, esaldiaren egibaldintzak jasotzeko beharrezkoa da osagai artikulatugabea.<sup>5</sup> (5) eta (6)ren kasuan, aldiz, egiebalagarria den zerbait jaso zitekeen osagai artikulatugaberik gabe ere; nahiz eta egibaldintza okerrekoak izan (Bach 1994; Carston 1988; Korta eta Perry 2011; Recanati 2002, 2005).

Azkenik, badirudi, bi kasu horietatik ezberdinak diren beste osagai artikulatugabe batzuk ere badaudela. Lehen bi kasuetan, hiztunak perpaus gramatikalki osoa zerabilen zerbait komunikatzeko, nahiz eta egibaldintza osoak ez izan, edo egibaldintza egokiak ez jaso esaldian erabilitako perpausak. Batzuetan, ordea, hiztunak perpaus osatugabe bat erabiltzen

<sup>5</sup> Honek ez du zerikusirik osagabetasun semantikorekin, Kortak (2012: 50) azaltzen duen moduan. Ikus, baita ere, Korta eta Perry (2017).

du zerbait komunikatzeko, eta, hori dela eta, esaldiaren egibaldintzetan osagai artikulatugabe bat dago (Korta eta Perry 2011: 105). Esate baterako, jo dezagun etxeko giltzen bila nabilela —ia egunero bezala— etxe guztian zehar eta Nahiak, horretaz jabeturik, honako hau esan dit:

(7) Mahai gainean!

(7) esatean erabilitako perpausa gramatikalki osatugabea da eta hura osatzeko “daude” edo “dago” erants liteke, baina ez dago horren beharrik. Nahiz eta perpaus osoa ez erabili, Nahiaren esaldiaren egibaldintzak jaso nahi baditugu, osagai artikulatugabe bat behar dugu. Giltzei buruz ari baitzen Nahia, bila nenbilen giltzei buruz.

Perryk asmatu zuenetik terminoak bidea egin du eta hainbatek erabili ditu antzerako nozioak terminoak hartu nahi duena azaltzeko. Bachek *implizitura* kasu gisa aztertzen dituenak (1994), Carstonek *esplikaturaren* parte gisa aberaste askearen bitartez azaltzen dituenak (1988), edo Recanatik, batzuetan, *saturazio* kasutzat edo, bestetan, *aberaste askearen* bitartez aztertzen dituen kasuak aztertzeko balioko luke (2002, 2005).

Osagai artikulatuen nozioak aplikazio zabala izan du, beraz, hizkuntza naturalaren semantika eta pragmatikaren alorrean. Aipatutako kasuak eta beste hainbat esplikatze erabili da: baldintzako perpausak, denbora-erreferentziak, adjektibo konparatiboak, deskripzio definitu osatugabeak, etab. Edonola ere, lan honen helburua ez da aipatu ditudan kasuak osagai artikulatugabe badiren edo ez diren eztabaidatzea. Ez naiz sartuko horretan. Edo, areago, argudio gehiago eman gabe, horietako batzuk, behintzat, osagai artikulatugabeak direla onartuko dut, nahiz batera edo bestera erabakitzeak ez duen eraginik lan honen gai nagusian.

## 2.2. Osagai artikulatugabeak pentsamenduan

Orain arte, osagai artikulatu eta artikulatugabeen arteko bereizketa esaldiei buruzkoa, alegia, hizkuntzari buruzkoa dela eman dut aditzera. Perryren bereizketak, ordea, pentsamendua du jomuga. Perry ([1986] 2000)ren helburua pentsamenduaren mailako osagai artikulatugabeak defendatzea zen, eta, zehatzago, norberari buruzko oinarrizko usteak azaltzea (Perry 2007: 538). Uste horiek norberaz dihardute, norbera ustean errepresentatuta egon ez arren. Esate baterako, pentsalari beraz, objektu beraz eta momentu beraz ari bagara, “Ezkerretan dago”ren bidez adieraz litekeen pentsamenduak eta “Nire ezkerretara dago”ren bidez adierazgarri den pentsamenduak egibaldintza berak izango lituzkete, bien egibaldintzen osagaia bailitzateke pentsalaria; lehen kasuan artikulatu gabe legoke pentsalaria, bigarreanean artikulatuta dago pentsalaria “nire” izenordainaren bidez (Perry 1980: 73-74; Korta 2012).

Pentsalariak osagai bat artikulatu gabe uzteko bi arrazoi egon litezke, gutxienez. Alde batetik, pentsalariak zerbait artikulatu gabe utz dezake, dagoen egoeran duen ustearentzat aukera hori artikulatzea ez delako errebantea. Dagoen egoeran egonda, nahikoa du pentsalariak aukera hori pentsatzeko. Edonola ere, galdetuz gero zer den artikulatu gabe utzi duen aukera, artikula zezakeen. Hori da, hain zuzen, goiko adibidearen kasua. Norberak bere burua artikulatzeko modua dauka, adin batetik aurrera; esaterako, norberari buruzko nozioaren bidez. Norberari buruzko nozioa hizkuntzaren kasuan “ni” izenordainaren parekoa den nozioa da.

Bestalde, pentsalariak zerbait artikulatu gabe utz dezake, dagoen egoeran, aukera hori artikulatzeko gaitasunik ez duelako —ezagutza faltagatik, hizkuntza ikasten ari delako, bere kultura dela eta, bere biologiaren ondorioz, edo bere diseinuak mugatzen duelako...—. Esaterako, haurrek, normalean, ez badute bidaiatu behintzat, ez dute izaten ordu-eremuen berri. Adibidea Perryrena da (2007: 540-42); honela dio bost urte dituen Jamaicak:

(8) Hamabiak dira.

Ordua lekuekiko erlatiboa da, eta, gaur egun, ordu-eremuekiko erlatiboa; baina ez daki hori Jamaicak. Alegia, zentzurik ez luke berarentzat “Hamabiak dira Pazifikoko Orduan” esateak. Jamaicak bera dagoen ordu-eremuko jendearekin bakarrik hitz egiten du, eta oraindik ez da Internet erabiltzen hasi. Egin behar duena egiteko ez dauka bere esaldiaren osagai dena artikulatzeko beharrik. (8) esatera motibatu duen ustearen osagai artikulatugabea da ordu-eremua, pentsalariak artikulatu ezin dezakeen osagaia, baina, hala ere, osagaia. Izan ere, Jamaicaren orduari buruzko esaldien egibaldintzak ordu-eremu baten arabera dira.

Nolanahi ere, osagai artikulatugabeek harrera ona izan arren literaturan, bada fenomenoak ukatzen duenik. Osagai artikulatugabeak ukatzen dituztenen artean bi jarrera nabarmentzen dira. Alde batetik, egibaldintza semantikoaren *osagaiak* direnik ukatzen dutenak daude (Borg 2005; Cappelen eta Lepore 2007). Ikuskera horren arabera, balizko osagai artikulatugabeak inplikaturen parekoak dira eta, ahal duten neurrian, pragmatikak semantikan izan lezakeen eragina baztertera utzi nahi dutenez, *minimalista* esaten diote beren buruari. Bestetik, ustezko osagai artikulatugabeak benetan artikulatuta daudela diotenak daude (King eta Stanley 2005; Stanley 2000). *Ezkutuko indexikoaren zaleak* esaten zaie horiei, perpausaren egitura sakonean edo, zehazkiago, haren forma logikoan indexiko isil baten modura artikulaturik daudela esaten baitute. Edonola ere, esan dudana bezala, lan honen helburua ez da aipatu ditudan kasuak osagai artikulatugabe badiren edo ez diren eztabaidatzea. Jarraian, Perryren zerbaitez jardutearen eta zerbaiti buruzkoa izatearen arteko bereizketa zein den argitu eta Perryri oker egozten zaion lehen gauza zein den azalduko dut. Gaizki egozteko zergatiak zeintzuk izan daitezkeen ere esplikatuko ditut.

### 3. Zerbaitez jardun eta zerbaiti buruzkoa izan


Artikuluaren sarreran aipatu dut Perryk bi modutan erabili zuela zerbaitez jardutearen eta zerbaiti buruzkoa izatearen arteko bereizketa. Batetik, bereizketa berea ez zen ikuspegia aurkezteko erabili zuela; zerbaiti *buruzkoa izan* artikulatutako osagaiarentzat soilik eta zerbaitez *jardun* artikulatu gabeko parametroentzat. Horri interpretazio eskusiboa deitu diot. Bestetik, bere ikuspegia azaltzeko bereizketa inklusiboki erabili zuela ere esan dut. Horrek esan nahi du errepresentazioak bere egibaldintzen *osagai guztiei buruzkoak* direla Perryrentzat. Osagaiak egon litezke artikulatuta edo artikulatu gabe, baina guztiak dira egibaldintzen osagai; osagaiak direnez gero: “Baiezpena osagai artikulatugabeei zein artikulatuei *buruzkoa* da. Hortaz, teoria hau da: (i) perpaus batzuk eta horiekin egindako baiezpenak osagai artikulatugabeei buruzkoak dira” (Perry [1986] 2000: 174).<sup>6</sup> Eta honela dio lan bereko hirugarren atalaren hasieran ere: “Bere sinplean, teoria txiki honek ezartzen du,

<sup>6</sup> “The statement is *about* the unarticulated constituent, as well as the articulated ones. So, the theory is (i) some sentences are such that statements made with them are about unarticulated constituents.”


nire ustez, ez dagoela oinarrizko arazorik baiezen bat osagai artikulatugabeei buruzkoa izatearekin” (Perry [1986] 2000: 176).<sup>7</sup>

Errepresentazioak bere egibaldintzen osagaiei buruzkoak dira. Osagaiak artikulatu gabe dauden kasuetan, errepresentazioak osagaiez dihardu. Hortaz, zerbaiti *buruzkoa izan* osagaiantzat erabili zuen, artikulatu zein artikulatugabeentzat, eta horietatik artikulatu gabe zeuden osagaiantzat bakarrik erabili zuen *jardun*. Osagai artikulatuentzat ez zuen erabili aparteko beste termino bat, horientzat *buruzkoa izan* erabili zuen besterik gabe: “Baiezen baten eta bere edukiaren osagaien, artikulatu nahiz artikulatugabeen, arteko erlazioentzat “buruzkoa izan” erabiliko dugu. Uste edo baiezenak objektuaz *diharduela* esango dugu bere egia harekiko erlatiboa denean” (Perry [1986] 2000: 179).<sup>8</sup>

Osagaiez diharduten errepresentazio guztiak dira osagaiei buruzkoak, baina osagaiei buruzkoak diren errepresentazio guztiak ez dira osagaiez diharduten errepresentazioak. Beheko irudiak adierazten duen moduan, *buruzkoa izan* multzoaren azpimultzoa da *jardun*, artikulatu gabeko osagaiak hartzen dituena.



Bereizketa inklusiboa



Bereizketa eskusiboa

Alabaina, Perryri beste erabilera bat egotzi zaio: gorago interpretazio eskusiboa deitu diodana. Horren arabera, errepresentazioak artikulatu gabeko parametroaz dihardu eta errepresentazioa ez da artikulatu gabeko parametroari buruzkoa, errepresentazioaren egibalioa parametro horren araberakoa den arren. Hau da, interpretazio horren arabera, artikulatutako osagaiantzat bakarrik erabili zuen Perryk zerbaiti *buruzkoa izan*; aldiz, *jardun* errepresentazioan artikulatu gabeko parametroentzat erabili zuen. Errepresentazioaren egibalioa parametro horren araberakoa litzateke; alegia, errepresentazioak parametroaz jardungo luke. Elkar-baztertzailak dira bi kategoriak, goiko irudian adierazten den moduan.

### 3.1. Bereizketa gaizki egotzi diotenak

Perryren ondoren, askok erabili dute bereizketa osagai artikulatugabeak dauzkaten errepresentazioei buruz esan zuena azaltzeko. Dena den, horietako gehienek eskusiboki

<sup>7</sup> “Simple-minded as it is, this little theory establishes, I think, that there is no basic problem with a statement being about unarticulated constituents.”

<sup>8</sup> “We shall reserve ‘about’ for the relation between a statement and the constituents of its content, articulated and unarticulated. We shall say a belief or assertion *concerns* the objects that its truth is relative to.”



darabilte bereizketa. Beharbada, horietan guztietan bereizketa eksklusiboki erabiltzen lehena Jon Barwise izan zen:

Hemen duguna da esplizituki esaten denaren (edo bestela linguistikoki adierazitakoaren), edo norbaiten buruan esplizituki errepresentatuta dagoenaren, eta baiezipena edo ustea sailkatzeko behar dugun proposizioaren arteko hutsune jakinari begiratzeko bi modu. Bi modu horiek onartzen dute esandakoaren egia agentearen perspektibaren arabera dela. Perryk [1986] jarriko zukeen bezala, argi dago baiezipenaren edo ustearen edukiak perspektiba horretaz “diharduela” nolabait, nahiz eta ez den perspektiba horri “buruzkoa”. (Barwise 1989: 242)<sup>9</sup>

Barwisek aintzat hartzen du Perryk osagai artikulatugabeen bidez erantzuten duen fenomeno. Alegia, Barwisek uste du badaudela parametroak errepresentazio bat sailkatzerakoan darabilgun proposizioaren parte direnak —nahiz eta egibaldintzen osagai ez izan— eta errepresentazioan bertan artikulatu gabe daudenak.<sup>10</sup> Ez dator bat, ordea, Perryk, eta hark berak Perryrekin batera lehenago ([1983] 1999), fenomenoari emandako erantzunarekin. Perryrentzat artikulatu gabeko osagaiak direnak Barwiserentzat ez dira osagaiak. Perryrentzat errepresentazioaren egibaldintzen *osagaia* da artikulatu gabeko osagaia; Barwiserentzat, aldiz, errepresentazioaren egibaldintza parametro horren arabera da, baina ez da errepresentazioaren egibaldintzen osagaia. Horiek lirateke Barwisek aipatzen dituen “hutsune jakinari begiratzeko bi modu”ak. Berak defendatzen duen ikuspegia eta Perryrena kontrajarriak direla uste du.

Barwisek bereizketa bere egiten du eta artikulatu gabeko (ez-)osagai horientzat erabiltzen du *jardun*: “Oinarritzko  $p$  proposizioa honela irudikatu genuen: ( $s \models \sigma$ ).  $\sigma$  gauza-egoeraren osagaiei proposizioaren gaia deritzegu, edo proposizioa zeri ‘buruzkoa’ den, hura.  $s$  deritzogu situazio hari, zeinari buruz ‘diharduen’ proposizioak” (Barwise 1989: 229).<sup>11</sup> Barwise hark eta Etchemendyk 1987ko lanean erabili zituzten ( $s \models \sigma$ ) formako  $p$  proposizioei buruz ari da. Proposizio horiek bi osagai izango lituzkete: alde batetik, agenteak esplizituki errepresentatutakoa jasoko lukeen  $\sigma$  proposizio erlatibizatua eta, bestalde, proposizio erlatibizatu hori gertakaria den edo ez den ebaluatuko lukeen  $s$  situazioa. Barwise eta Etchemendyk (1987) orduan horrela egin ez bazuten ere, Barwisek (1989) *buruzkoa izan*  $\sigma$  proposizio erlatibizatuaren osagaiatzat darabil; “jardun”, berriz,  $s$  situazioko parametroentzat.

<sup>9</sup> “What we have here are two ways of looking at a particular gap between what gets said (or otherwise linguistically indicated) explicitly, or explicitly represented in someone's head, and the proposition we need in order to classify the statement or belief. Both ways of looking at it recognize that the truth of what is said depends on the perspective of the agent in question. As Perry [in Thought without Representation] would put it, it is clear that the content of the statement or belief in some way ‘concerns’ this perspective, even if it is not “about” the perspective.”

<sup>10</sup> Barwisek proposizioak eta egibaldintzak ezberdintzen ditu. Proposizioak errepresentazioaren egibaldintzak eta hori egiazkoa edo faltsua den situazioa jasoko lituzke, jarraian azalduko dudako moduan.

<sup>11</sup> “Here we display a basic proposition  $p$  as ( $s \models \sigma$ ). We call the constituents of the state of affairs  $\sigma$  the subject matter of the proposition, or that which the proposition is ‘about’. We call  $s$  the situation the proposition ‘concerns’.”

Ondorioz, zenbait autorek, Barwiseri jarraiki beharbada, Perryk sortutako bereizketa modu eskusiboan soilik erabili zuela interpretatu dute. Ez da bakarrik bereizketa eskusiboki ere erabiltzea egozten diotela, horiek bereizketa eskusiboki soilik ulertzen dute.

Honela interpretatu du, esaterako, Stephen Nealek: “Perryren terminologia erabilita, esan liteke (2) [“Hiriburu orok 100.000 biztanle baino gehiago ditu”] esatean egindako baiezipenak Europaz *diharduela*, esaterako, nahiz eta Europari *buruzkoa* ez izan” (Neale 2007: 294).<sup>12</sup> Nealek kuantifikatzaileen murrizketa lantzeko bi azalpen bereizten ditu: “azalpen implizitua” eta “azalpen esplizitua”. Bi ikuspegiaren arteko alde esaldia adierazten duen pentsamenduan —esaldiaren egibaldintzetan, alegia— onartu nahi diren osagaien arabera da. Ikusi bezala, Barwisek ere auzia modu berean aurkezten du. Azalpen implizituak errepresentazioaren egibaldintzetatik kanpo utziko lituzke artikulatu gabeko ez-osagaiak —egibaldintzetatik kanpo utziak, ez baitira gehiago osagai—, nahiz eta errepresentazioen egibaldintza horien arabera izan. Hori litzateke Barwisek aldeztuko lukeen azalpena. Azalpen horren arabera, domeinu baten arabera da egiazkoa edo faltsua “Hiriburu orok 100.000 biztanle baino gehiago ditu” esaldia; alegia, esaldiaren egibaldintza domeinu batekiko erlatiboa da. Kasu horretan, Europak mugatuko luke “hiriburu orok” kuantifikatzailearen domeinua. Azalpen esplizituak, aldiz, “hiriburu” izena “europar hiriburu” bezalako izen-sintagma aberatsago batekiko eliptikoa dela defendatuko luke. Edo elipsiaren kontzeptura jo gabe ere, esplizitu egingo luke Europa esaldi edo ustearen egibaldintzen osagai gisa.

Nealek zerbaitez jardutearen eta zerbaiti buruzkoa izatearen arteko bereizketa azalpen implizitua eta esplizitua ezberdintzeko darabil, sarreran azaldu dudana bezala. Ikuspegi esplizituarentzako zerbaiti *buruzkoa izan* darabil; *jardun*, berriz, implizituarentzako. Hortaz, argiki, bereizketaren interpretazio eskusiboa egiten du Nealek. Beretzat, aldiz, osagai artikulatugabe guztiak egibaldintzen osagai dira eta, hortaz, ikuspegi esplizitua aldeztu du. Alabaina, uste izan zitekeenaren aurka, Nealek ikuspegi implizitua defendatzea egozten dio Perryri, goian azaldu bezala.

François Recanatik ere Perryren bereizketaren interpretazio eskusiboa egin du, eta Perryri hori onartu izana egotzi dio: “‘Thought without Representation’ en, Perryk aurkezten du [...] ‘jardun’ eta ‘buruzkoa izan’ bereizketa. Errepresentazio batek ebaluatzen den situazioaz ‘dihardu’, eta ebaluatu beharreko edukiko osagaiei ‘buruzkoa da’” (Recanati 2007b: 221).<sup>13</sup> Recanatik Perryri egozten dio zerbaiti *buruzkoa izan* errepresentazioaren eduki edo egibaldintzen osagaien erabiltzea eta, aldiz, *jardun* egibaldintzetatik kanpoko parametroentzat. Artikulatu gabe geratzen den parametroaren arabera izango litzateke esaldiaren egibaldintza, parametroa esaldia ebaluatzen den situazioaren parte bailitzateke.

Hori argiago ikusten da Recanatik jartzen duen beste adibide honetan: “Perryren arabera, nire lau urteko alabak ‘bostak dira’ badio [...], bere usteak ordu-eremu partikularraz ‘dihardu’, baina ez da hari ‘buruzkoa’” (Recanati 2007a: 124).<sup>14</sup>

<sup>12</sup> “To use Perry’s terminology, the statement I make when I utter (2) [‘Every capital city has more than 100,000 inhabitants.’] might be said to *concern*, say, Europe, even if it is not *about* Europe.”

<sup>13</sup> “In ‘Thought without Representation’, Perry introduces [...] the distinction between ‘concerning’ and ‘being about’. A representation ‘concerns’ the situation with respect to which it is evaluated, and it is ‘about’ the constituents of the content to be evaluated.”

<sup>14</sup> “According to Perry, if my four-year-old daughter says ‘it’s five o’clock’ [...] her thought ‘concerns’ a particular time zone but is not ‘about’ it.”

Aurreko atalean nioen pentsalariak osagai bat artikulatu gabe uzteko bi arrazoi egon litezkeela. Batetik, pentsalariak zerbait artikulatu gabe utz dezake, dagoen egoeran duen ustearentzat aukera hori artikulatzea ez delako errelebantea; nahiz eta pentsalaria gai den artikulatu gabe utzi duen osagaia artikulatzeko. Bestetik, ordea, pentsalari batzuek ez dute gaitasunik duten ustearen osagai artikulatugabeak artikulatzeko. Hori da Recanatik aztergai duen kasua. Jamaicarentzat bezala, Recanatiren alabarentzat, “Hamabiak dira Parisen” esateak ez du zentzurik, dagoen ordu-eremuko jendearekin bakarrik hitz egiten baitu. Recanatiren alabarentzat Paris orduari buruzko esaldi eta pentsamenduak ebaluatzen “faktore globala” da. Recanatiren arabera, Perryk defendatu zuen modu honetan landu zitezkeela balizko osagai artikulatugabeen kasurik gehienak.<sup>15</sup>

### 3.2. Oker egoztearen arrazoiak

Nahiz eta batzuen eta besteen ikuspegiak ezberdinak izan, goian aipatutako autore horiek bereizketa eskusiboki erabili izana egotzi diote Perryri. Eta arrazoi dute, eskusiboki ere erabili baitzuen Perryk bereizketa, azalduko dudana bezala. Horiek zerbait gogorragoa egotzen diote, ordea: bereizketa eskusiboki soilik erabili izana. Ez dute uste Perryren bereizketa inklusiboa denik.

Besteak beste Recanati eta Neale filosofoek Perryren bereizketa horrela ulertu badute — oker, alegia—, egon behar du zergatiren batek Perryren testuan. Erantzukizun guztia ez dute agian testua interpretatu dutenek. Bi arrazoi nagusi ikusten ditut oker egozte horientzat. Lehenengoa da Perryk bereizketa erabili zuela eskusiboki, nahiz eta berea ez zen ikuspegia azaltzeko erabili. Bigarrena da, eta, beharbada, gaizki egoztearen arrazoi nagusia izan liteke, bereizketa inklusiboki ere erabili zuela bere ikuspegia azaltzeko, eta ez zela guztiz sistematikoa izan hasieran aurkeztu zuen bereizketa inklusiboa erabiltzean. Horrek gaizki-ultertuak sortu dituela esango nuke.

Edonola ere Perryri ezin egotz dakioke bereizketaren interpretazio eskusiboa soilik defendatu izana. Horretan argia izan zen Perry. Bereizketa inklusiboki ere erabili zuen. Aitzitik, bereizketa inklusiboki aurkeztu zuen eta horrela erabili zuen artikuluan zehar; amaiera aldera bereizketa eskusiboki erabili arren.

Lehenengoarekin hasiko naiz. Perryk ([1986] 2000: 176-77) artikulatu gabeko osagaia artikulatzeko gaitasunik ez duen hiztun-komunitate baten errepresentazioen egibaldintzak nola jaso galdegiten du eta, horretarako, honako gogo-esperimentu hau planteatzen du. Eman dezagun Z-land urruneko irla txiki eta isolatu bateko biztanleek, Z-landarrek, ez daukatela beste inongo eguraldiari buruzko berririk. Beren txikitasunean, ez daukate aukerarik pentsatzeko euria leku batzuetan egin dezakeela eta beste leku batzuetan ez. “Euria ari du” diotenean, Z-landen euria ari duela esan nahi dute, eta ez dute beste aukerarik. Aurreko ataleko adibideko Jamaicari “Hamabiak dira Pazifikoko Orduan” esatea bezain arrotza zaie Z-landarrei “Euria ari du Z-landen” esatea. Esan gabe doa beti, pentsatu gabe, euria non ari duen, beti baita toki berean: Z-landen. Z-landarren errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko aukera bat aurkeztu eta eztabaidatzen du Perryk: proposizio “erlatibizatu” edo proposizio-funtzioen bidez jasotzea. Berea ez den aukera teoriko hori azaltzeko erabiltzen du Perryk bere bereizketa eskusiboki:

<sup>15</sup> Recanatiren ikuspegiaren errepaso kritiko baterako ikus Korta (2008, 2011).

Z-landarren eguraldiari buruzko diskurtsoarentzat, baiezpena egiazkoa da baldin eta adierazten duen funtzio proposizionala egiazkoa bada Z-landekiko erlazioan. Z-land ez da z-landerazko eguraldi-baiezpen bakoitzaren osagai artikulatugabe bat, baizik eta faktore global bat, zeinaz eguraldiari buruzko Z-landeko diskurtso guztiek diharduten. (Perry [1986] 2000: 179)<sup>16</sup>

Eta are garbiago: “Z-landarren baiespen eta usteek Z-landez *dihardute*, baina ez dira Z-landi *buruzkoak*” (Perry [1986] 2000: 179).<sup>17</sup> Hemen, garbi asko, bereizketa eksklusiboki darabil; hots, elkar-baztertzailak dira buruzkoa izan eta jardun. Esan dudan bezala, ordea, berea ez den ikuspegia azaltzeko darabil bereizketa eksklusiboki. Izan ere, laugarren atalean azalduko dudan moduan, ikuspegi hori esplizituki bazter uzten du Perryk, lehenago egin zuen moduan (Perry [1979] 2000).

Alabaina, esan dut badagoela Perryri bereizketa eksklusiboki egozteko bigarren arrazoi bat ere. Bigarren hau izan liteke, beharbada, gaizki-egoztearen arrazoi nagusia. Kontua da Perryk bereizketa inklusiboki badarabil ere artikuluan zehar, besteen ikuspegia azaltzeko salbu, artikulua azken aurreko atalean, bere ikuspegia azaltzerakoan, zerbaitez jardutearen eta zerbaiti buruzkoa izatearen arteko bereizketa eksklusiboki darabilela: “[...] tokiko eguraldirako jokabidea zuzenean kontrolatzen duten uste-egoerek tokiko eguraldiaz *dihardute* [...] soilik, eta ez dira horri buruzkoak” (Perry [1986] 2000: 181).<sup>18</sup> Eta honela dio zertxobait beherago: “Horien gaineratik uste indexikoak daude, uste primitiboagoak soilik *jardun* egiten duten lekuari *buruzkoak* direnak [...]” (Perry [1986] 2000: 182).<sup>19</sup>

Perry hemen bi uste-egoera motaz ari da. Aurrerago esplikatuko dut horiek zer paper daukaten Perryren proposamenean. Bi kasu horietan argiki eksklusiboki ari da bereizketa erabiltzen Perry. Jardun eta buruzkoa kontrajarri egiten ditu: jardun bada, ez da buruzkoa. Beraz, esan dudan bezala, Perry ez da guztiz sistematikoa hasieran aurkeztutako bereizketa erabiltzen duenean eta, nahi gabe, Nealerena edo Recanatirena bezalako atribuzio okerre bide eman die.

Bestalde, ez da harritzekoa Neale eta Recanatik bereizketa eksklusiboki ulertzea. Aitzitik, zentzuzkoena, beharbada, hori da. Kontuan izanik osagai artikulatu vs osagai artikulatugabe bereizketa eksklusiboa dela, horiek errepresentazioarekin duten erlazioa adierazteko darabilgun bereizketak ere eksklusiboa beharko luke. Perryk berak, idatzi berriagoetan, hori bera egin du:

Kasu horietan guztietan, diot judizioak objektu finkoaz, artikulatu gabeko objektuaz, diharduela nahiz eta ez den esplizituki berari buruzkoa. Judizioak

---

<sup>16</sup> “For the Z-landers’ discourse about weather, a statement is true if the propositional function it expresses is true relative to Z-land. Z-land comes in not as an unarticulated constituent each Z-landish weather statement is about, but a global factor that all Z-land discourse about the weather concerns.”

<sup>17</sup> “Z-landers’ assertions and beliefs *concern* Z-land, but are not *about* Z-land.”

<sup>18</sup> “(...) those belief states that directly control behavior for local weather merely *concern* local weather, rather than being about it.”

<sup>19</sup> “Above these are indexical beliefs, which are *about* the place that the more primitive beliefs merely concern [...]”

objektuaz dihardu, objektuaren araberakoa baita haren egibalioa, baita pentsamenduan esplizituki ordezkaturata ez dagoenean ere. (Perry 1998: 4)<sup>20</sup>

Perryk goiko aipuan eksklusiboki darabil bereizketa, baina berritasun bat gehitzen du. Errepresentazioak objektuaz badihardu, ez dela “esplizituki berari buruzkoa” dio. Alegia, errepresentazioak objektuaz diharduenean, inplizituki berari buruzkoa da, nahiz eta ez den esplizituki berari buruzkoa.

Eta antzerako ñabardura egiten du beste artikulua berriago honetan ere: “Osagai bat diskurtsoan nahiz pentsamenduan artikulatu gabe dagoenean, pentsamenduak hartaz ‘diharduela’ esango dut, zuzenean hari buruzkoa izan ordez” (Perry 2010: 235).<sup>21</sup> Kasu honetan ere eksklusiboki darabil bereizketa, baina, kasu honetan ere errepresentazioak objektuaz badihardu, ez dela “zuzenean hari buruzkoa” dio. Alegia, errepresentazioak objektuaz diharduenean, modu ez-zuzenean berari buruzkoa da, zuzenean berari buruzkoa ez den arren.

Uste dut modu berean interpretatu behar direla aipagai izan ditudan Perryren artikuluen amaierako bi aipuak. Aipu horietan Perryk ez du ñabartzen dioena eta interpretazio okerre bide eman die. Edonola ere, hasierako artikuluan egin bezala, bereizketa inklusiboki ere badarabil idatzi berriagoetan, eta bereizketa bi eratara darabilela esatea da interpretaziorik zintzoena: “‘Diharduela’ erabiliko dut indexiko edo bestelako adierazpen erreferentzialik gabe errepresentazioak objektuari buruzko informazioa ematen duenean” (Perry argitaratzeko).<sup>22</sup>

Edozein kasutan, esan dudana bezala, bereizketa eksklusiboki erabiltzea da natural eta zentzuzkoena. Horregatik, nire ustez egokiena bereizketa Perryk beheko aipu honetan darabilen bezala erabiltzen izango litzateke: “Lehenengo kasuan, errepresentazioa objektuari buruzkoa dela diot, hau da, edukiaren osagai artikulatua dela. Bigarren kasuan, errepresentazioak objektuaz diharduela diot, edukiaren osagai artikulatugabea dela, alegia” (Perry 2012: 184-85).<sup>23</sup>

Laburbiltzeko: eztabaida honek erakusten duena da, nik uste, ez dagoela problema handirik bereizketa era batean edo bestean erabiltzearekin. Hasieran esan dudana bezala, bereizketaren egozte okerra hor geratu izan balitz, ez legoke arazo handirik. Hautu terminologiko ezberdinen kontua litzateke, beharrezko argibideak emanda, besterik gabe, konpontzeko modukoa. Alabaina, Perryri bereizketa okerra egotzi dioten batzuek beste egozte faltsu bat ere egin diote. Horiek Perryri egotzen diote, errepresentazioak osagai artikulatugabeaz diharduen kasuetan, errepresentazioaren egibaldintzak proposizio

<sup>20</sup> “In all of these cases, I say that the judgement *concerns* the fixed, unarticulated object, even though it is not explicitly about it. The judgement concerns the object because its truth-value depends on the object, even when it is not explicitly represented in thought.”

<sup>21</sup> “Where a constituent is unarticulated in both speech and thought, I’ll say that the thought ‘concerns’ it, as opposed to being straightforwardly about it.”

<sup>22</sup> “I’ll use the term ‘concerns’ for the object such representations give us information about without the use of indexicals or other referring expressions.”

<sup>23</sup> “In the former case, I say the representation is about the object, and it is an articulated constituent of its content. In the latter case, I say that the representation concerns the object, which is an unarticulated constituent of the content.”

erlatibizatu bidez jaso litezkeela defendatzea. Erakusten saiatuko naizenez, azken egozte oker hori bereziki larria da; bi aldiz baita okerra. Perryk ez zuen halakorik esan, eta, gainera, ezin zuen halakorik esan. Bestela esanda, proposizio erlatibizatuak onartuz gero errepresentazioen objektu gisa, defendatzen ari zen tesiaren kontra egingo zukeen zuzenean. Izan ere, osagai artikulatugabeak dauzkaten errepresentazioen egibaldintzak proposizio erlatibizatuak direla defendatuz gero, artikulatu gabeko osagaiak *osagai ez direla* onartzen arituko ginatke eta, ondorioz, osagai artikulatugabeen tesia bera ukatuko genuke. Hemen, hortaz, badirudi erabaki egin behar dugula: proposizio erlatibizatuak edo osagai artikulatugabeak.

#### 4. Proposizio erlatibizatuak

Perryri *jardun* eta *buruzkoa izan* bereizketaren ikuspegi eksklusiboa egotzi dioten askok beste zerbait ere egotzi diote: osagai artikulatugabeak dauzkaten errepresentazioen egibaldintzak proposizio erlatibizatu bidez jasotzea proposatu zuela. Hori egiten du, esaterako, Recanatik:

[...] Perryk berak proposizio erlatibizatuak darabiltza, osagai artikulatugabeak deritzenak (edo gutxienez horien azpimota bat) tratatzeko. Perryren arabera, nire lau urteko alabak “bostak dira” dioenean (edo uste duenean), adierazi edo uste duen proposizioa ordu-eremura erlatibizatu dago, baina ordu-eremua ez da adierazten duen edo uste duen edukiaren alderdia. Egibaldintzentzako errelebantea da, baina egokiagoa da esandakoa edo uste izandakoa ebaluatzen den zirkunstantziaren alderditzat eraikitzea. Perryk berak puntu hori adierazten du esanez haurraren usteak ordu-eremu jakinaz “diharduela” baina ez dela hari “buruzkoa”. (Recanati 2007a: 124)<sup>24</sup>

Z-landarrentzat lekuarekin bezala, Recanatiren alabarentzat zentzurik ez du “Hamabiak dira Pariseko orduan” esateak, Recanatiren alabak bera dagoen ordu-eremuko jendearekin bakarrik hitz egiten baitu. Horregatik, Recanatik uste du ez dela egokia ordu-eremua bere alabak esan edo pentsatutakoaren osagaitzat hartzea. Bestalde, ordea, ordu-eremua bere alabaren esaldiaren “egibaldintzentzako errelebantea” dela dio Recanatik; alegia, bere alaba dagoen ordu-eremuaren araberkoa dela esaldiaren egibalioa. Hori dela eta, bere alabak esandakoa edo uste izandakoa proposizio erlatibizatu bidez jasotzea da egokiena. Ordu-eremua, Recanatiren alabaren esaldiaren “osagai” artikulatugabe litzateke, hark ordu-eremua errepresentatu ez arren. Recanatiren arabera, osagai artikulatugabeak “osagai” izaten jarraituko luke, baina ez esandakoaren edo pentsatutakoaren osagai. Recanatirentzat, Barwiseren antzera, proposizio austindarreko “osagai” artikulatugabea izango litzateke ordu-eremua (Recanati 2010: 23). Ikuskera hori defendatzea egozten dio Perryri goiko aipuan.


Nealek ere Recanatiren antzera interpretatu du Perry, erlatibismoa egotzi nahi ez dion arren (Neale 2007: 369, 70. oin-oharra). Nealek Barwise eta Perryren ([1983] 1999) ikuspegia eta beranduago Perryk ([1986] 2000; [2001] 2012) esandakoak berdintzen ditu, eta osagai

<sup>24</sup> “[...] Perry himself appeals to relativized propositions, in order to deal with what he calls unarticulated constituents (or at least a subclass of them). According to Perry, if my four-year-old daughter says ‘it’s five o’clock’ (or believes it), the proposition she expresses or believes is relativized to a time zone, but the time zone is not an aspect of the content she expresses or believes. It is truth-conditionally relevant but is best construed as an aspect of the circumstance with respect to which what she says or believes is evaluated. Perry himself expresses that point by saying that her thought ‘concerns’ a particular time zone but is not ‘about’ it.”


artikulatugabeak egibaldintzetik kanpo uztea egozten dio (Neale 2007: 294). Hortaz, badirudi, azken buruan, Neale bat datorrela Recanatiren interpretazioarekin. Recanatiren eta Nealeren ikuspegiak ezberdinak badira ere, biak bat datoz Perryri proposizio erlatibizatuak errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko erabiltzea egoztean. Jarraian, hori okerra dela azalduko dut: Perryk esplizituki baztertu baitzituen proposizio erlatibizatuak.

#### 4.1. Proposizio erlatibizatuen aurkako argumentua

Honela labur liteke Perryk proposizio erlatibizatuak errepresentazioen egibaldintzak jasotzearen aurka emandako argumentua: erlatibismoak —alegia, proposizio erlatibizatuak errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko erabil litezkeela dionen ikuspegiak— osagai artikulatugabeak, osagaitzat beharrean, faktore globaltzat hartzen ditu. Hori dela eta, erlatibismoak indexikoak dauzkaten errepresentazioen antzera tratatzen ditu osagai artikulatugabeak dauzkaten errepresentazioak. Baina, Perryren arabera, ez dira berdinak indexikoak dauzkaten eta osagai artikulatugabeak dauzkaten errepresentazioak. Horretarako arrazoi nagusia honako hau da: “Euria ari du” bezalako esaldiek ez dihardute beti hiztunak dauden lekuaz.



Perryren ikuspegia



Erlatibismoaren ikuspegia

Z-landarrek “Euria ari du” diotenean, Z-landen euria ari duela esan nahi dute eta ez dute beste aukerarik. Beti leku berberaz ari dira. Erlatibismoaren arabera, beti leku berberaz ari izateak bermatzen du lekua, Z-land, Z-landarren eguraldiari buruzko esaldi eta usteen faktore global edo (ez-)osagai artikulatugabetzat hartzea. Alegia, Z-landarren errepresentazioen egibaldintza horren arabera den baina Z-landarrak artikulatzeko gai ez diren parametrotzat hartzea. Erlatibismoak Z-landarren errepresentazioen egibaldintzak nola jasoko lituzkeen azaltzean honako hau dio Perry: “Z-land ez da z-landerazko eguraldi-baiezpen bakoitzaren osagai artikulatugabe bat, baizik eta faktore global bat, zeinaz eguraldiari buruzko Z-landeko diskurtso guztiek diharduten” (Perry [1986] 2000: 179).<sup>25</sup>

Perryk azaltzen du horientzat Z-land ez dela Z-landarren baiezpen zein uste bakoitzaren osagai artikulatugabea, “faktore globala” baizik, zeinaz diharduten Z-landarren errepresentazioek. Horren zergatia da horien eguraldi berriemate guztiek uniformeki Z-landarrak dauden lekuaz dihardutela. Antzera gertatzen da indexikoen kasuan. “Euria ari du

<sup>25</sup> Z-land comes in not as an unarticulated constituent each Z-landish weather statement is about, but a global factor that all Z-land discourse about the weather concerns.

hemen” perpausaren esanahiak esaten digu, besteak beste, perpausa erabiltzen den esaldia esan den lekuari buruzkoa dela. Kasu honetan, uniformitate hori artikulatua legoke “hemen” indexikoaren esanahiaren bitartez. Hortaz, “Euria ari du”ren kasuan perpausaren esanahi osoak jasoko luke egonkor mantentzen den erlazioa —“Euria ari du hemen” perpausaren kasuan elementu bakarrak jasotzen duen bezala—. Modu honetan, esan liteke “Euria ari du”k beti esalea dagoen tokiaz diharduela, edozein dela ere lekua. Hau da: z-landeraz hitz egiten dutenek dauden lekuko eguraldiaz jardungo lukete, eta eguraldiari buruz dituzten baiezpenez zein usteak egiazkoak edo faltsuak lirateke hango eguraldiaren arabera (Perry [1986] 2000: 180). Alabaina, hori garbi asko ukatzen du Perryk; artikularen hasiera-hasieratik, gainera:

*Euria ari du hemenek* artikulatzen duena *Euria ari duk* besterik gabe artikulatu gabe uzten duelako suposizioa ez da oso onargarria, aldiz. Demagun, adibidez, nire semeak Murdockeko seme zaharrenarekin hitz egin duela telefonoz, eta “Nola daude gauzak han?” nire galderari erantzuten ari dela. Orduan, haren erantzuna ez litzateke Palo Alto buruzkoa izango, Murdock buruzkoa baizik. *Euria ari duren* esanahiaren azterketaren zati gisa esan beharko genukeen gauza bakarra da:

(iv) *u* [esaldia] *pri* [lekuari] buruzkoa da.

(Perry [1986] 2000: 175)<sup>26</sup>

“Euria ari du” erabil liteke hitzuna ez dagoen beste leku bati buruz hitz egiteko eta, hori dela eta, ezin genezake esan Z-land edo, adibide honen kasuan, Murdock “Euria ari du” esaldiaren faktore globala denik; eta, beraz, ezin genitzake proposizio erlatibizatuak erabili perpaus hori bera darabilten errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko.<sup>27</sup> Artikuluaren hasieran hori dio, eta amaiera aldera gauza bera berresten du:

Aplikatu ahal genioke analisi hori nire seme gazteenaren ohartarazpenari? Hau da, interpretatu ahal genezake homomorfikoki, funtzio proposizional bat adierazten duela esanez, eta egiazkoa dela esan, Palo Altoz diharduelako? Baina hori ez litzateke ingelesari buruzko azalpen zehatza izango. Ingeleseko eguraldiaren diskurtsoak ez dihardu uniformeki hiztunak dauden lekuaz. (Perry [1986] 2000: 180)<sup>28</sup>

---

<sup>26</sup> “The supposition that *It is raining* simply leaves unarticulated what *It is raining here* articulates is not very plausible, however. Suppose, for example, that my son has just talked to my older son in Murdock on the telephone, and is responding to my question, ‘How are things there?’ Then his remark would not be about Palo Alto, but about Murdock. All we should probably say as part of our analysis of the meaning of *It is raining* is simply:

(iv) *u* is about *p*.”

<sup>27</sup> Onar liteke jartzen duen adibidea ez dela egokiena, Perryren semeak esandakoa Perryren galderaren eliptikotzat har bailiteke eta, hortaz, osagaia artikulatuta dagoela argudiatu. Erraz jar liteke, ordea, balizko elipsirik ez dakarren adibidea Perryk urtebete lehenago egin zuen bezala (Perry 1985: 1240, 1242). Adibidean, Perry (beste ordu-eremu batean dagoen) Ingridekin ari da telefonoz.

<sup>28</sup> “Could we apply this analysis to my younger son’s remark? That is, could we interpret it homomorphically, taking it to express a propositional function, and say that it is true, because it concerns Palo Alto? But this would not be an accurate remark about English. Weather discourse in English does not uniformly concern the place where the discussants are.”



Perryk esplizituki bazterten du, beraz, ingelesezko eguraldi-berriemateen egibaldintzak jasotzeko proposizio erlatiboa erabiltzearen soluzioa. Horren arrazoia da ingelesez ez dela objektu bera, ezta erlazio bera ere —indexikoekin gertatzen den moduan—, osagaia agentearen errepresentazioei buruzkoa izatea ziurtatzen duena. Hala ere, ez zen horretan geratu. Artikuluaren azken bi ataletan bere ikuspegia azaldu zuen. Hemen proposizio erlatibizatuak ez zituen erabili errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko, baizik eta errepresentazio ezberdinek komun zutena sailkatzeko erabili zituen proposizio-erlatibizatuak. Jarraian hori azalduko dut.

#### 4.2. Proposizio erlatibizatuak rol gisa

Artikuluaren azken bi ataletan aurkeztu zuen bere ikuspegia. Ikuspegia ez da berria: Perryk (1977, 1979) hasiera-hasieratik defendatutakoa da, funtsean. Perryrentzat proposizio erlatibizatuak uste-egoerak rol kausalaren arabera sailkatzeko balio duten objektu abstraktuak dira; ez dira usteen objektuak, agenteak zer uste duen sailkatzeko tresna egokiak baizik: “Perpaua indexikodunak edota proposizio erlatibizatuak erabiltzen ditugu uste-egoerak indibiduatzeke, eta helburu batekin: usteen agenteak sailkatzea azalpenetarako eta berriuspenetarako erabilgarriak izango diren moduetan” (Perry [1979] 2000: 39).<sup>29</sup>

Proposizio erlatibizatu bera erabil liteke, egibaldintza ezberdinak dituzten errepresentazioek komun dutena atzemateko. Esaterako, Recanati eta Perryk “Hartz horrek erasotzeko zorian nago”ren bidez adierazgarria den ustea badute, egibaldintza ezberdinak izango dituzte bien usteek (Perry [1977] 2000: 18). Bat egiazkoa da esaldi horren bidez adierazgarria den ustea duen pentsalaria (Recanati) hartz batek erasotzeko zorian badago. Bestea egiazkoa da esaldi horren bidez adierazgarria den ustea duen pentsalaria (Perry) hartz batek erasotzeko zorian badago. Indexikodun perpauak edo proposizio erlatibizatuak ez dituzte jasotzen bi pentsalarien usteen egibaldintzak, Recanatik eta Perryk —baldintza normaletan— hartzarengandik ihes egiteko daukaten disposizio komuna baizik. Horrela erabili zituen, hain zuzen, Perryk proposizio erlatibizatuak (1977ko artikuluan “rol” deitu zituenak) behin errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko baztertu ondoren. Honela dio: “Euria ikusi berri duten eta norbere aterkiak irekitzear dauden ustedun guztiak funtzio proposizional bera uste izango balute bezala sailkatuko liriateke, baina beren usteen egibaldintzak ezberdinak liriateke horien kokapenaren arabera” (Perry [1986] 2000: 181).<sup>30</sup>

Hortaz, Perryk, Recanatik edo Barwisek ez bezala, ez darabiltza proposizio erlatibizatuak errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko: egibaldintza horiek uste izateko moduak atzemateko darabiltza proposizio erlatibizatuak. Zalantzarik balego honela dio 1993an Perry ([1986] 2000)ri egindako epilogoan:

Nire iradokizuna izan zen, errerepresentatu gabeko parametro bera pentsatzeko edo hitz egiteko modu oso batentzat errebantea denean, berariazko uste edo esaldi bakoitza funtzio proposizionalarekin sailkatu behar genukeela. Balioari

<sup>29</sup> “We use sentences with indexicals or relativized propositions to individuate belief states, for the purposes of classifying believers in ways useful for explanation and prediction.”

<sup>30</sup> “All believers who had just seen rain and were about to open their umbrellas would be reckoned as believing the same propositional function, but the truth-conditions of their beliefs would differ with their location.”

funtzioa aplikatuz lortutako proposizioarena izango litzateke egibalioa. (Perry [1993] 2000: 185)<sup>31</sup>

Esan dut azken bi ataletan aurkezten duen ikuspegia ez dela berria. Funtsean, Perryk ([1977, 1979] 2000) indexikoez adierazgarri diren usteak uste eternalak-edo direnetatik ezberdindu zituen eta azaldu zuen indexikoez adierazgarri diren usteek problema sortzen ziotela usteak ulertzeko ikuskera tradizionalari. Perry ([1986] 2000)ren berritasuna da indexiko bidez adierazgarri diren bi uste-egoera ezberdintzea: uste indexikoak eta osagai artikulatugabeak dauzkaten usteak, alegia. Defendatu zuen bi uste-egoera horien arteko aldea ez dela azaltzen egibaldintzen aldaketarekin, baizik eta pentsamenduaren forma dela aldatzen dena, eta usteen egitura berria aurkeztu zuen:

[...] eguraldiari buruzko gure usteek egitura modukoa dute. Oinarrian eguraldiari buruzko “uste oinarrizkoak” leudeke, Z-landarren usteen antzerakoak. Horiek eguraldi lokalaz dihardute, eta egiazko zein faltsu dira bertan egiten duen eguraldiaren arabera. [...] Goian leku ezberdinei buruzko usteak leudeke [...], ustearen elementu nahiko testuinguru-independenteek bermatuak: euria ari du Palo Alton, euria ari du Murdocken, etab. Erdian, uste identifikatzaileak genituzke, goiko informazioa itzulgarri egiten dutenak ekintzarako: leku hori Palo Alto da. (Perry 2000 [1986]: 182).<sup>32</sup>

Eternalak-edo diren uste-egoerez gain, euria ari duen lekuari buruzko bi uste-egoera daude, Perryren arabera. Uste izateko modu horiek ez dira pentsalariak uste dituen gauza ezberdinak, gauza berari buruzko testuinguru-mendekoagoak diren uste-egoerak besterik ez dira. Uste izateko modu horiek, egoera ezberdinetan, egibaldintza berak dituzte, hots, gauza berari buruzkoak dira. Har ditzagun, atzera, bigarren ataleko hasierako esaldiak:

- (1) Euria ari du Donostian.
- (2) Euria ari du Gipuzkoako hiriburuan.
- (3) Euria ari du hemen.
- (4) Euria ari du.

Horietako bakoitzak aipatu ditudan uste-egoerak adierazteko balio du. Lehenengo biek eternalizat har genitzakeen uste-egoerak adierazteko balio dute; izan ere, perpauseko elementu guztiak testuinguru-independenteak dira —denbora kontuak alde batera utziz gero, behintzat—. (3)ren bidez adierazgarria den uste-egoeraren kasuan, Donostia pentsamenduan artikulatuta egongo litzateke, “hemen” indexikoarekin designatzen den

---

<sup>31</sup> “My suggestion was that, in cases in which same unrepresented parameter is relevant to a whole mode of thinking or discourse, we should classify each specific belief or utterance with a propositional function. The truth-value would be that of the proposition obtained by applying the function to the value.”

<sup>32</sup> “[...] our beliefs about the weather have a certain structure. At the bottom, there are what we might call “primary beliefs” about the weather, which are like the Z-landers’ beliefs. These concern the local weather, and are true or false depending on it. [...] At the top [there] are beliefs [...] about various places, in virtue of relatively context-insensitive components of belief: it is raining in Palo Alto, it is raining in Murdock, and so forth. At the middle level are identificatory beliefs that allow information at the top level to be translated into action at the bottom level: this place is Palo Alto.”

elementuaren bitartez, Perryren arabera. Azkenik, (4)ren bidez adierazgarria den uste-egoerak Donostia osagaia artikulatu gabe izango luke.

(1) edo (2) eta (3) edo (4)ren bidez adierazgarri diren uste-egoeren artean badago alde nabarmen bat. Badirudi (3) eta (4), baldintza normaletan, ezagutza zein jokabide modu jakinek motibatzen dituztela. Eman dezagun adibide bat. (3) edo (4) uste-egoera duenak leihotik begiratu, edo euri-tantak sentitu ditu soinean. Segur aski, gainera, (3) edo (4) uste-egoera duenak aterkia hartuko du, edo, behintzat, euria egiten duen egoeran aproposa den ekintzaren bat egingo du. Ez dirudi (1) eta (2)ren kasuan hori horrela denik. Ez dago, baldintza normaletan, (1) edo (2) uste-egoerek motibatutako jokabide edo ezagutza modu jakinik.<sup>33</sup>

Areago, Perryk dio (3) eta (4)ren bidez adierazgarri diren uste-egoeren artean ere aldea dagoela. Esan dudana bezala, hori izango da Perryren ([1986] 2000) berritasuna. Uste-egoera bakoitzak bere funtzioa dauka giza kognizioan. (3) bidez adierazgarri diren uste-egoeren funtzioa izango litzateke eternalak-edo diren (1) eta (2) bezalako uste-egoeren eta (4)k bezalako osagai artikulatugabeak dauzkaten uste-egoeren arteko zubi lana egitea. (4)ren funtzioa, berriz, litzateke lekuko euriaren pertzepzioaren eta, normalean, giro horretarako aproposa den jokabidearen arteko koordinazio lanak egitea. Beraz, erlatibismoari ikusten zion problema konpon dezake Perryk egitura berri honen bitartez. Izan ere, egitura berriak eternalak-edo diren usteen eta osagai artikulatugabeak dauzkaten usteen arteko koordinazioa bermatzen du, eta, hala, hitzuna dagoen lekua ez den beste leku bati buruzko usteak izatea ahalbidetzen du, nahiz eta osagaia artikulatu gabe egon.

## 5. Ondorioak

Azaltzen saiatu naizen bezala, Perryrentzat errepresentazioa osagai artikulatu zein artikulatugabeei buruzkoa da. Errepresentazioaren egibaldintzen osagaietako bat artikulatu gabe dagoen kasuetan, errepresentazioak osagaiak diharduela dio. Perryren hasierako bereizketa inklusiboa da, beraz. Edonola ere, azaldu dudana bezala, bereizketa inklusiboki zein eksklusiboki erabil liteke eta, beharbada, bereizketa eksklusiboki erabiltzea da naturalena. Edozein kasutan, bereizketa modu batean edo bestean erabili, gauza bat dago garbi: Perryk ez zituen proposizio erlatibizatuek errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko erabili. Hori egotzi diotenak oker daude. Erakusten saiatuko naizenez, Perryk ez zuen halakorik esan, eta, gainera, ezin zuen halakorik esan. Bestela esanda, proposizio erlatibizatuak onartuz gero errepresentazioen egibaldintzak jasotzeko, defendatzen ari zen tesiaren kontra egingo zukeen zuzenean.

## 6. Erreferentziak

Barwise, Jon. 1989. "Situations, facts, and true propositions". In *The situation in logic*, Stanford: CSLI Publications, 221-54.

Barwise, Jon eta John Etchemendy. 1987. *The liar: an essay on truth and circularity*. Oxford, New York: Oxford University Press.

---

<sup>33</sup> Honi buruz ikus, esaterako, de Ponte eta Korta (2014a, 2014b, 2017) eta de Ponte et al. (2020).

Barwise, Jon eta John Perry. 1983. *Situations and attitudes*. Cambridge, MA: Bradford/MIT. Berrargitaratua in 1999, Stanford: CSLI Publications.

Bach, Kent. 1994. "Conversational implicature". *Mind and Language* 9 (2): 124-62.

Borg, Emma. 2005. "Saying what you mean: unarticulated constituents and communication". In R. Elugardo eta R. J. Stainton (arg.), *Ellipsis and Nonsentential Speech*. Dordrecht: Springer Netherlands, 237-62.

Cappelen, Herman eta Ernie Lepore. 2007. "The myth of unarticulated constituents". In M. O'Rourke eta C. Whashington (arg.), *Situating semantics: essays on the philosophy of John Perry*. Cambridge: MIT Press, 199-214.

Carston, Robyn. 1988. "Implicature, explicature, and truth-theoretic semantics". In R. M. Kempson (arg.), *Mental representations: the interface between language and reality*. Cambridge: Cambridge University Press, 155-81.

de Ponte, Maria eta Kepa Korta. 2014a. "On times and contents." In I. Witczak-Plisiecka (arg.), *Cognitive and pragmatic perspectives on speech actions*. Berlin: Peter Lang, 13-34.

de Ponte, Maria eta Kepa Korta. 2014b. "Tenses, dates and times". *Research in Language* 12 (4): 301-17.

de Ponte, Maria eta Kepa Korta. 2017. "New thoughts about old facts. On Prior's root canal". In M. de Ponte eta K. Korta (arg.), *Reference and representation in language and thought*. Oxford: Oxford University Press, 163-78.

de Ponte, Maria, Kepa Korta eta John Perry. 2020. "Utterance and context". In T. Ciecierski eta P. Grabarczyk (arg.), *The architecture of context and context-sensitivity*. Cham, Switzerland: Springer, 15-28.

Korta, Kepa. 2008. "François Recanati: Perspectival thought: a plea for (moderate) relativism". *Notre Dame Philosophical Reviews* 2008.07.04.

Korta, Kepa. 2011. "Recanati: Esaldiaren testuingurua eta edukiak". *Gogoia* 8 (1): 87-93.

Korta, Kepa. 2012. "Holmes, Perry, and reference". In A. Newen eta R. van Riel (arg.), *Identity, language, and mind: an introduction to the philosophy of John Perry*. Leiden: Brill/Mentis, 33-52.

Korta, Kepa eta John Perry. 2011. *Critical pragmatics. An inquiry into reference and communication*. Cambridge: Cambridge University Press.

Korta, Kepa eta John Perry. 2017. "Full but not saturated: the myth of mandatory primary pragmatic processes." In S.J. Conrad eta K. Petrus (arg.), *Meaning, context and methodology*. Berlin, Boston: De Gruyter Mouton, 31-50.

King, Jeffrey C. eta Jason Stanley. 2005. "Semantics, pragmatics, and the role of semantic content". In Z. G. Szabo (arg.), *Semantics versus Pragmatics*. Oxford: Oxford University Press, 111-64.

Ninan, Dilip. 2016. "What is the Problem of De Se Attitudes?". In M. Garcia-Carpintero eta S. Torre (arg.), *About Oneself: De Se Thought and Communication*. Oxford: Oxford University Press, 86-120.

Neale, Stephen. 2007. "On location". In M. O'Rourke eta C. Whashington (arg.), *situating semantics: essays on the philosophy of John Perry*. Cambridge: MIT Press, 291-394.

Perry, John. [1977] 2000. "Frege on demonstratives". In *The Philosophical Review* 86 (4): 474-497. Berrargitaratua in 2000, *The problem of the essential indexical: and other essays*. Expanded edition, Stanford: CSLI Publications, 1-27.

Perry, John. [1979] 2000. "The problem of the essential indexical". In *Noûs* 3 (1): 3-21. Berrargitaratua in 2000, *The problem of the essential indexical: and other essays*. Expanded edition, Stanford: CSLI Publications, 27-44.

Perry, John. [1980] 2000. "A problem about continued belief". In *Pacific Philosophical Quarterly* 61: 317-332. Berrargitaratua in 2000, *The problem of the essential indexical: and other essays*. Expanded edition, Stanford: CSLI Publications, 57-75.

Perry, John. 1985. "Self-knowledge and self-representation". *Proceedings of IJCAI-1985*: 238-42.

Perry, John. [1986] 2000. "Thought without Representation". In *Proceedings of the Aristotelian Society* supplementary volumes, 60 (1): 137-51. Berrargitaratua in 2000, *The problem of the essential indexical: and other essays*. Expanded edition, Stanford: CSLI Publications, 171-88.

Perry, John. 1998. "Myself and I". In M. Stamm (arg.), *Philosophie in synthetischer absicht (a festschrift for Dieter Heinrich)*. Stuttgart: Klett-Cotta, 83-103.

Perry, John. [2001] 2012. *Reference and reflexivity*. Stanford: CSLI Publications. Berrargitaratua in 2012, Stanford: CSLI Publications.

Perry, John. 2007. "Situating semantics: a response". In M. O'Rourke eta C. Whashington (arg.), *Situating semantics: essays on the philosophy of John Perry*. Cambridge: MIT Press, 507-76.

Perry, John. 2010. "Selves and self-concepts". In J. Keim Campbell, M. O'Rourke eta H. S. Silverstein (arg.), *Time and identity*. Cambridge, MA: MIT Press, 229-38.

Perry, John. 2012. "Thinking about the self". In J. Liu eta J. Perry (arg.), *Consciousness and the self: new essays*. Cambridge: Cambridge University Press, 76-100.

Perry, John. Argitaratzeko. "Reference and Dretske's theory of representation". In M. Freuchiger. *Themes from Dretske*. Berlin: de Gruyter.

Recanati, François. 2002. "Unarticulated constituents". *Linguistics and Philosophy* 25 (3): 299-345.

Recanati, François. 2005. "It is raining (somewhere)". *Linguistics and Philosophy* 30 (1): 123-46.

Recanati, François. 2007a. "Relativized propositions". In M. O'Rourke eta C. Whashington (arg.), *Situating semantics: essays on the philosophy of John Perry*. Cambridge: MIT Press, 119-53.

Recanati, François. 2007b. *Perspectival thought: a plea for (moderate) relativism*. Oxford: Oxford University Press.

Recanati, François. 2010. *Truth-conditional pragmatics*. Oxford: Oxford University Press.

Stanley, Jason. 2000. "Context and logical form". *Linguistics and Philosophy* 23 (4): 391-434.

Torre, Stephan. 2016. "De Se Thought and Communication: An Introduction". In M. Garcia-Carpintero eta S. Torre (arg.), *About Oneself: De Se Thought and Communication*. Oxford: Oxford University Press, 1-21.

